



# ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIEN ARGAZKI LEHIAKETA: ONDAREA KLIK BATEAN

Bizkaiko Foru Algundiaren, Igerrak (Euskal Instagram Komunitatea) era Ondare Lagunak taldearen eskutik, Instagram eta Facebook bidezko argazki lehiaketa aurkezten dugu. Ondarearen Europako Jardunaldiak urriaren 1etik 31ra bitartean ospatuko dira. Honen inguruan ekitaldi pila egingo dira Bizkaiko emakumeen garrantzia historian zehar jendeari zabaltzeko. Testuinguru honetan, hurrengo argazki lehiaketa antolatu dugu:

## OINARRIAK

### Argazki mota

Bizkaiko ondarea, hain zuzen, askotan ezezaguna dena, emakumeekin loturik dagoen ondarea, argazkien bidez erakutsi dezazuela nahi dugu.

### Nola parte hartu?

- Hurrengo traolak erabili: **#ondareabizkaia2018**, **#igerrak\_ondareabizkaia2018**
- Instagram edo Facebook sare sozialeetan norberaren profilaren bidez parte hartu.
- Argazkiaren edo ekimenaren deskribapen laburra jarri.
- Argazki berriak zein zaharrak izan daitezke.
- Instagramen **@ondareabizkaia**, **@ondarelagunak** eta **@igerrak** erabiltzaileen kontuak jarraitzera gonbidatzen zaituegu.

### **Nork hartu dezake parte?**

- 18 urteko edo gehiagoko herritarek, baldin eta ez badira Igerrak, Ondare Lagunak eta Bizkaiko Foru Aldundiko langile edota ahaide hurbilak.
- Jardunaldietako ekintzetan parte hartu eta argazkiak egiten dituen edonor.
- Bizkaiko emakumeen emaria eta garrantzia islatzen duten edozein argazki, nahiz eta jardunaldietan parte hartu ez.

### **Epea**

Urriaren 1etik 31 ra. Biak barne.

### **Sariak**

3 argazkirik onenak ondorengo sariak eramango dituzte bakoitzak:

- Irabazleak aukeratutako Euskalduna Jauregiko ikuskizun baterako 2 sarrera.
- Bizkaiko Foru Aldundiko museo sarerako 2 pertsonentzako gonbidapenak.
- Liburu sorta.

Gainera, argazkirik onenekin erakusketa bat egingo da Bizkaiko sareko museo batean.

### **Epai mahaia**

Epai mahai bat ezarriko da. Honen barnean: Ondarea Bizkaia, Ondare Lagunak eta Igerraken arduradunak parte hartuko dute.